

# «Ulerkorragoak izan beharko genuke koldarkeriaren aurrean. Koldarkeria fisikoaz ari naiz»

Ramon Saizarbitoria. Idazlea

Azken urteotan idatzi eta idatzi bizi izan da. «Kezka daukat idazte kontu hau ez ote den mendekotasun bat eta ez ote naizen hortik sendatu behar», adierazi digu

■ FELIX IBARGUTXI

**DONOSTIA.** 'Martutene' 2012an eta iazko azaroan 'Lili eta biok'. Ramon Saizarbitoria langile ibili da azken urteotan. 'Lili eta biok' nobela honetan, protagonista nagusia Faustino Iturbe idazlea da. Donostian bizi da eta, kasualitate batzuk direla-eta, Lili hamabost urteko neskatila ezagutzen du, zeinek 1936ko Gerra Zibileko gertaera baten berri ematen dion.

–Bistan da eleberrian gerrako paisaia asko sartu nahi izan dituzula: aipatzen duzu María Cristina hoteleko paretetan dauden bala-arras-


toak, esaten duzu Aizpurua arkitekto falangistak non zeukan bulegoa...

–Giro bat sortu nahi izan dut, ezta? Eta esan nahi nuen hura hemen dagoela oraindik, eta gainera betirako izango direla arrasto horiek. Izan ziren haien fantasmak oraindik ere hemen daudela. Hemen, Peña y Goñi kale honetan bertan hil zuten bat. Eleberriari egitasuna emateko ere laguntzen du jendeak ezagutzen dituen pertsonaia horien aipamenak. Jendeak plakak behar izaten ditu, Udalak ipinitako plakak –«hemen halako hil zen»– baina nik, zorionez edo zorritzarez, ez dut horren beharrik.

–Zuk zure eleberrietan benetako kale-izenak ipintzen dituzu. Hori ez da oso ohikoa euskal letretan.

–Bai, ulertzekoa da. Herri txikia garenenez, arriskugarria da jendeak toki horiek identifikatzea.

–Harkaitz Canok esan du, berriki, horrelako datu 'errealak' sartzen



Ramon Saizarbitoria etxeko balkoian, eskuinaldean Kursaal ageri delarik. ■ MIKEL FRAILE



hasia dela. Azken liburuan, ipuin bateko pertsonaia Angela Merkel da.

–Uste dut ulertzen dudala Canok zer esan nahi duen. Glamourra galdu dezake eszenategia gertuegia denean, baina beno, argi daukat: nire lanetako hizkuntza euskara da eta, eszenategia, gehienetan, Donostia. Baina askotan bestela gertatu da, kontua ez da izan istorioko lekuak ez aipatzea, baizik eta nobelak kanpoan kokatzea. Garai batean izan zen joera hori ere. Alde batetik, errealitatez hitz egiteko ezina zegoen gu hasi ginenean; Txillardegik ere kanpoan kokatzen ditu nobela batzuk. Edo bestela leku asmatuetan, beharbada irakurleari gauza ezaguna ez zaiolako nobeleskoa irudituko, beldur hori bazegoen. Badirudi nobeleskoagoa dela Metropolitan Station, Amarako geltokia baino. Ez dut egiten errealismoaren bila, hala ere.

–Aitak gerra egin zuen?  
–Bai.

–Kontatu zizun?

–Bai, aitak eta amak. Ez ziren asko sufrutakoak izan, baina bada pasadizo bat, berezia, ia nobela guztietan ateratzen dudana. Amak bazuen lehengusua bat, Elgetakoa, eta hark transmisioa egin zuen. Kontatu egiten zuen: mairuek egindako basakeriak eta abar eta abar. Nik ume-umetan entzun nituen istorio horiek, eta erabat gogorra egin zitzaidan. Gerraren beldurra eduki izan dut eta iruditzen zitzaidan hainbat urtero etorri égingo zela: gainera, tebeoak gerraren inguruak izaten ziren.

–Nobela irakurri duen jendeak segituan esango zuen: zenbat kointzidentzia, eta a zer indarra duten kasualitateak! Halako batean hau dio narratzaileak: «Kointzidentziak ezagunak dira argitzen duten klabeak dira».

–Kointzidentziak oso gauza litera-



LILI ETA BIKOK  
RAMON  
SAIZARBITORIA  
Argitaldea: Erein.  
Orrialdeak: 576.  
Prezioa: 24 euro.

rioak dira. Zinean ere, bi protagonistak kointzidentziak badute kalean, eta handik laster liburu-denda, ikusleak esaten du: kontuz, hor zerbait gertatuko da. Badirudi klabearen bat dagoela kointzidentzia horietan, ezta? Edo arazo baten soluzioa. Orain asko erabiltzen den hitza erabili:

magikoa da hori gertatzea. Egia da, hala ere, kointzidentzia asko dardela nobelaren zehar.

–Nobelista baten lizentziak dira.

–Bai. Baina posible da, aizul Dena da posible. Estatistika-adituek dioten bezala: zailago da loteria tokatzea. Nobela errealista da, baina badago irrealtasun puntu bat ere; ironia eta sarkasmoa dauden bezala.

–Bai, beharbada sarkasmoa egon daiteke Faustino eraso egiten dienean bere etsai bati, autoan doazela. Eraso egiten dio, nahiz bera pertsona ahula den, osasunaz ondo ez dagoena.

–Hori aipatzen duzularik, uste dut nobelaren beste helburuetako bat zera dela: ez dut esango koldarkeriaren gorazarre egitea, baina bai onarpena. Gure belaunaldiko gizonoi, adoretuak izan beharrek lanak eman dizkigu. Horrela hezi izan gara: gizonak adorea behar du, fisikoki indartsua izan behar du... Horri kontra egiten dio nobela honek. Ez dakit orain gauzak nola dauden. Batzuek esaten dute beriz bueltan dagozela gizon gihartsuak. Mutil gazte gihartsu asko ikusten dira orain... Hemen azken hamarkadotan izan dugun indarkeriaren asuntuan ere asko aipatu da koldarkeria. «La cobarde equidistancia» esaten zuten. Baina uste dut ulerkeriako izan beharko genukeela koldarkeriaren aurrean, ezta? Ez naiz koldarkeria moralaz ari, koldarkeria fisikoaz baiziki. Adorea batzuetan gaizki interpretatzen da, zeren psikopatologia duten batzuk oso adoretu izaten dira, eta azkenean zoroputa batzuk besterik ez dira. Faustino baditu emakume modernoaren ezauzgarri batzuk, nolabait esateko. Ahu-

la da, baina momentu batean, maitasunaren eraginez, eraso egiteko gai da; eta aitortzen du maitasunagatik bere bizi-tza emateko prest dagoela. Alegia, nobelaren dagoena ez da jardun zikinok bat koldarkeriaren alde. Uste dut gizakiak eduki behar duela sentimendu hori, prest egon behar duela momenturen batean zerbaitengatik bizitza emateko.

–Faustino gaixorik dago, ez du tratamendua jarraitu nahi. Baina gai da berea egiteko eta besteen proposamenei ezezkioa emateko.

–Gizon-mota baten karikatura egin izan dut: «Martutene»-ko Martin, adibidez, eta oraingo Faustino hau. Gaur egun zabaltzen ari den modelo bat kritikatu nahi dut. Medioetan, adibidez, gorapaitzen duten «naturalizate» hori, edota «izan zeu». Gorroto dut «naturalizate» hori, eta nola zabaltzen ari den, gainera, ezta? Bale, izan zeu, baina gorde zerbait, zeren nazka ere eman dezakezu. Medioetan gero eta gehiago azaltzen diren pertsonaia lotsagabe horiek ezin dituzte eraman. Pasatzen ari gara lotsati eta timidoen estetika horretatik bestez muturrera. Lehengo gehiegizko izango zen, baina oraingoa ere... konpostura pixka bat aldarrikatzen dut. Ramon Etkezarietak aurreko zutabe batean zioena: leku itxietan, kendu txapela.

–Nobelako istorioa Txiki txakurra bitartez argitzen da azkenean. Oso txakur gizatiarra da. Ikusten da pentsatu eta sentitu egiten duela. Badakizu zerbait, zu zeu ere txakur-jabea zara-eta.

–Txakurak eta Montaigne beti aipatzen ditut, eta zorionez badirudi Montaigne bueltatzen ari dela. Zu jartzen zara txakur baten aurrean eta badakizu hor norbait dagoela zuri begira, eta bera ere pentsatzen ari dela. Zu pentsatzen ari zara bera zikina dagoela eta bera pentsatzen ari da: tipo alfer zikin hau noiz altxatuko da sofatik eta noiz joango gara kalera paseatzerantz! Txakurra eduki ez dutenek ez dute hori ikusten. Txakurak sinpatikoak zaizkit, katuak ez. Katu gehienak politikak dira, felinoak; txakurak

era askotakoak dira, baita itsusiak ere. Txakurra herrena eta itsusia izan liteke, baina maitagarri egiten da, hain zuzen ere begirasunagatik.

–Amorrua ematen omen dizu jendeak aipatzen duenean libururen luzera.

–Bai, proterotearaino nago. Agertzen diren kontu guztiak nik esateko nituenak dira. Hori da euskal literaturaren abantaila: euskaraz badaukat hori egitea, ez nagoelako merkatuaren menpe.

–Nobelaren barruan beste nobela bat dago. Halako batean, protagonista, Faustino Iturbe, hasten da gerrari buruzko bere nobela idazten.

–Ez zait interesatzen nobela historikoa egitea. Neureak ez diren gariak zailak egiten zaizkit. Beldur naiz ez ote ditudan xehetasunak behar bezala jasoko. Zer egiten dut, hortaz? Gerra Zibilari buruz idatzi beharrean, gerra horretaz idazten ari den idazle bat hartzen dut protagonistatzat. Eman zidan gogoia bi planoak tartekatzeke: orduko garaia eta oraingoa. Eronka hori aurre egin gabe bainongoen. Baina dokumentazio-lan handia eskatzen zuen: zer tabako erretzen dute gudanek? zer auto marka sartzen dute? Gainera, niri interesatzen zaidana da nola egiten den nobela bat. Ezin izan dut abandonatu roilo hori.

–Beti esaten duzu idazteari utziko diozula, baina orain ere ariko zara zerbait idazten, ala?

–Idatzi beharra daukat. Egia da 60 urte betetzear nengoenetik idatzi eta idatzi bizi izan naizela. Beste gauza batzuk egiteari utzi diot eta horren penza sentitzen dut. Beste gauza serioagoetan pentsatu ordez, hori ibili naiz eguneroko idazten. Patri Urkizuk zenbat aldi deitu dudan buelta bat emateko! Irudipena daukat ez ote naizen azken mohikanoa. Ez naiz identifikatuta sentitzen idaztea ofizio egiten dutenean. Eman behar dizudan erantzuna da: kezka daukat idazte kontu hau ez ote den mendekotasun bat eta ez ote naizen hortik sendatu behar. Niretzat ez da broma. Ordu asko kendu dizkit idazketak, baina niregatik egin dut.



«Gizonak adoretu eta indartsu izan behar duela diote. Horri kontra egiten dio nobelak»

«Gerraren beldur bizi nintzen. Iruditzen zitzaidan hainbat urtero etorri égingo zela»

«Donostiak oraindik daukan ondasun kultural handiena Orfeoia da, eta jendeak ez daki»

## «Gure gizarteak haurtzaindegia ematen du, bereziki Donostiak»

:: F. I.

–Liburuen aurkezpenekoan, esan zenuen gazteentzako moduko liburua ere badela hau. Hala gertatu al da? Iritsi al zaizu zantzurik?

–Zantzu gehiegirik ez dut jaso inondik. Norbaitek, eragozpen bezala, luzera ipini dit. Eskoletarako liburu luzeegia omen da. Horrekin kezkatuta nago. Eskola bateko ama batek bidali zidan orain dela gutxi gaztetxoari irakurtzeko eman zioten testua, eta benetan lotsagarria zen. Han ez zegoen literaturarik, egia esan nahiko bizenoa zen. Egilearen izenik ez dut esango. Gogoe-

ta egin behar da kultura mailan zer zabaldu behar den, zertan gastatu behar diren diruak. Adibidez, gatzetxo batek non aurkituko ditu klasekoak, eskolan ez bada? Batek esango dit: bai, baina obra hori gutxi balatzuek baino ez dute estimatuko. Eta nik erantzuten dut: bai, baina bestela zaletu zitezkeen horiek ez dira zaletuko. Hemen arazoa da kulturaren definizio antropologiko bat erabiltzen dugula, eta nola gehien gogoratu egiten behar diren gauza guztiak, eta nola erraztu behar diren edukiak... azkenean sukalde eta txikitoak hartzea kultura dira.

Konforme, antropologikoki kultura dira, baina ez gara horretaz ari. Gure gizarteak haurtzaindegia ematen du, bereziki Donostiak. «Hartu dezagun denok goardasol zuri bat eta ireki Boulevardrean 7etan». «Hartu bakoitzak lore bat eta ipini ez dakit non». Hori ez da kultura, eta gauza horietan dirua gastatzea, adibidez euro pila bat inaugurazioko festan, bitartean agure eta atso batzuk berogailua piztu ezinik bizi direlarik... Gastua justifikatzeko esaten dizute tabernariak diru asko irabaziko dutela, lanpostuak sortuko direla... Kulturaz ari garenean beste zerbaitetaz ari gara, eta dirua eskolan gastatu behar da. Portzierto, Donostiak oraindik daukan ondasun kultural handiena Donostiako Orfeoia da, eta jendeak ez daki. Gazte bati esan behar zaio: jode, tio, imajinatu daukagula futbol talde bat, amateurra, eta Real Madridi irabazten diola. Beraz, ume denak hasi daitetzela soinu-tresnaren bat jotzen ikasten eskolan, denak!